

Heri Aldizkaria

otomoty

2002ko maiatza 77. alea



Mendi martxa arrakastatsua

**ERREPORTAIK: ANTIOKO BASELIZAREN LAGUNAK / GOIARGI
EITZAKO JAIK**

BOTEPRONTOAN: LUIS DE ARRIBA

Garaialde Lizeoa

Labeaga 25, Urretxu

☎ 943 72 21 12

Bulego ordutegia: 9etatik 11ak arte



URRETXU
ZUMARRAGA



IKASTOLA



kilometroak 2002

**elkarren
beharrean**

urretxu-zumarraga

BATXILERGOAK, D EREDUA

Natur eta Osasun Zientziak

Giza eta Gizarte Zientziak

Lau ibilbide:

- Zientifiko-Teknikoa
- Osasun Zientziak
- Giza Zientziak
- Gizarte Zientziak





1972-73 ikasturtean 3 urte zituzten ikastolako haurrei ateratako argazkia.

Atzeko ilaran: Xabier Chico, Ibon Gonzalez de Audikana, Mikel Aranburu, Aitor Telleria, Aitor Elgarresta, ?, Luismi Arrizabalaga, Eli Alberdi eta ?.

Erdiko ilaran: Joseba Etxeberria, Aloña Lopez, Edurne Zufiaur, Luis Mari Garcia, Jose Migel Lete, Aitor Zabaleta, Amaia Agirreurreta, ?, ?, Teresa Rodriguez, Ainhoa Alzelai, Amaia Pildain eta Olga Reviejo.

Aurrealdean: Joseba Ugarteburu.

Argazkia: Maria Angeles Erostegei (andereñoa).



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599



“Xiberoa Garatzen” lan taldearen eskerrak

Esker anitx Xiberotik,

Orain dela 2 hilabete abian jarri genuen Udalbiltzak antolatutako "Xiberoa Garatzen" kanpaina. Honen bitartez xiberotarrek sortutako "Xiberoa 2010" egitasmoaren aldeko dirulaguntza jasotzea izan dugu xede. Era berean, kanpaina honen barruan, ekimen ezberdinak bultzatu dira, horrela iazko "Biba Xiberua" ekimenean sortutako erakusketak eta diaporama hainbat herritan ikusgai izan ditugu (Bilbon, Donostian, Hondarribian, Irunen, Oreretan, Legazpin, Urretxun...), eta guztiz eskertuak izan gara joan garen herri bakoitzean.

Dagoeneko kanpainaren amaiera iristen ari da, eta orain arte diru bilketa honetan gure aurreikuspenak betetzen ari badira ere, datozen egun hauetan azkeneko aukera izango dute laguntza eskaini nahi duten guztiek (laguntza emateko telefonoa: 669-546357).

Hemendik gure eskerrak beroenak, behin eta berriz, zentzu horretan ahalegin bereziak egiten dituztenei, eta borondate hutsez urratutako poltsikoeta-

tik hainbat diru eskaini digutenei. Zoritxarrez, eta aldi oro, gai ezberdinen alde (euskara, egunkaria, irratia...) dirulaguntza eskatu beharra izaten dugu oraindik, eta egia esateko, gehienetan bezala, poltsiko ber-berak izaten dira urratuak. Gora zuen borondatea!

Tamalez ostarte zabaletan ere laino beltzak ageri dira. Zentzu honetan atsekabez jaso dugu Euskal Telebistaren jarrera, inolako arrazoirik eman gabe, kanpaina honen aldeko iragarkia debekatzeari.

Besterik gabe, milesker dirulaguntza eskaini duzuen guztioi, eta lan honetan ibili zaretenoi. Gure aldetik esan, berriz ere lan egiteko prest gaudela gure herriaren alde sortu daitekeen edozein ekimenen alde, garrantzi handirik eman gabe antolatzailearen izenari, helburuari baizik. Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako herritarrei esker anitx Xiberotik. Biba Xiberoa!

J.L. Aranburu, Goi-Urolako "Xiberoa Garatzen" lan taldearen izenean.

J. Garmendia eta I. Berasategi atxilotuak

Azken hilabete honetan Joseba Garmendia eta Ismael Berasategi urretxuarrak atxilotu dituzte espainiar eta frantziar poliziaek. Joseba Garmendia Urretxuko zinegotzia apirilaren 29an atxilotu zuen espainiar poliziaek. Hasiera batean Soto del Relera eraman zuten eta, egun, Aranjuezeko espetxean dago. Senitartekoek berarekin izateko aukera izan dute eta itxura batean animoz ondo eta lasai dago. Josebari ETaren finantziario sarearen partaide izatea eta dirua zurtzea leporatzen diote. Josebak esan duenez, ez dute ezer bere aurka eta "dena Batasunaren ilegalizazioa prestatzeko kanpaina hutsa da". Ez dago jakiterik espetxeratzea luze joango den.

Ismael Berasategi maiatzaren 15ean atxilotu zuten Frantzian. Atxiloketaren unean polizia aurre egin zien eta epailearen aurrean aurpegian ubeldurak zituela azaldu zen. Hori dela eta, gaizkile talde bateko kidea izateaz eta auto lapurretaz gain, autoritateari erresistentzia ere leporatzen diote Frantzian. Espainian, berriz, Ainhoa Barbarin eta Xabier Zabalo herritarrekin batera Behorburu komandoko kidea izatea eta hainbat bonba-auto jartzea leporatzen diote.

Ismael Paristik gertu dagoen La Santé espetxean dago eta senitartekoei ez diete oraindik bera ikusten utzi. Xabier Zabalo zumarratarra bere espetxe berean dago eta esan duenez, "epileptikoa den arren, ez diote sendagairik hartzen utzi. Hori dela eta, behin baino gehiagotan nerbioek jota egon da".



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



Alemaniarrek Urretxun

Urretxurekin anaituta dagoen Schwazenbruck herriko hainbat ordezkari herrian izan dira maiatzean. Hilaren 10ean prentsaurrekoa eskaini zuten Urretxuko udaletxean, anaituta dauden herriekin duten harremana zaintzeko sortu duten elkarte eta elkarte honek argitaratu duen liburua aurkezteko. Prentsaurrekoan, alemaniarrek batera, anaitzea bultzatu zuen Ramon Arbizu alkate ohia eta Pello Gonzalez alkatea izan ziren.

90 hamarkada hasieran Schwazenbruck-eko alkatea zenak, zeinek Urretxurekin anaitzea bultzatu zuen, prentsaurrekoan esan zuenez, "II. Mundu Gerra

bizi izan nuen eta, ordutik, demokraziaren eta Europaren alde lan egin dut, Europako herriekin harremanak izaten saiatuz. Baina, beti uste izan dut Europa ezin dela politiko-en esku utzi, herritarren esku baizik. Hori dela eta, gurekin anaituta dauden herriekin ditugun harremanak sakonduko dituen elkarte sortu dugu". Schwazenbruck-eko alkate ohiak urretxuarrak antzerako elkarte bat sortzera animatu zituen.

Bestalde, alemaniarrek, kaleratu berri duten liburua ere aurkeztu zuten. Bertan, beraiekin anaituta dauden herri guztien hainbat ohitura, abesti eta sukaldaritza errezeta bildu dituzte.



Itsaski zozketa

Lourdes Sanz Portuk irabazi zuen apirileko itsaski otarra. Argazkian, Juan Manuel Kerejeta senarrarekin ikus dezakezue gustura asko. Zorionak eta zer edo zer sobratu baldin bazaizue, badakizue non gauden!

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Ikaspilotaren topaketak Urretxun eta Zumarragan

Ikaspilota Gipuzkoako Ikastolen Elkarateak sortu zuen duela 10 urte, gaztetxoek artean pilotazeatasuna pizteko. Horretarako, ikasturtean zehar ikasgai ezberdinetan pilota lantzea bultzatzen dute. Horrez gain, eskolen arteko topaketak ere antolatzen dituzte. Duela urte batzuk, herri kirolak jorratzen ere hasi ziren.

Duela bi aste, Ikaspilotak, Kutxaren laguntzaz, antolatutako herri kirol eta pilota topaketak izan ziren Legazpin, Urretxun eta Zumarragan. Maiatzaren 14an, Legazpiko Olazabal institutuko eta Lazkaoko San Benito ikastolako DBH 4ko ikasleek herri kirol saioa izan zuten Urretxuko Gernikako Arbola plazan. Eguraldi bikaina lagun, bi ikastetxe hauetako ikasleek elkar ezagutzeko eta Euskal Herriko kiroletan aritzeko aukera izan zuten.

Hilaren 15ean, berriz, Urretxu-Zumarraga Ikastolan eta Olazabal eta Iparragirre institutuetan DBH 1 ikasten ari diren ikasleak izan ziren herri kiroletan aritu zirenak.

16an, Lehen Hezkuntzako 5. maila ikasten ari diren gaztetxoek txanda izan zen. Domingo Agirre, Gainzuri, La Salle-Legazpi, Haztegi eta Urretxu-Zumarraga Ikastola ikastetxeetako 185 haur inguru pilotan jokatzeko arituko ziren.

Ikaspilotak Urola Garaian antolatu dituen topaketako saio nagusia ostiralean izango zen. Gipuzkoako 12 bat ikastetxetan DBH 4 ikasten ari diren gazteak herri kiroletan aritu ziren Zumarragako Euskadi enparantzan.



La Salle-Legazpi ikastetxearen La Salle Astea

Maiatzaren 13tik 17ra bitartean La Salle-Legazpi ikastetxeak La Salle Astea ospatu du. Lehen Hezkuntzako eta DBHko haur eta gaztetxoek ekitaldi ugarietan parte hartzeko aukera izan zuten.

Astelehenean LHko 1. eta 2. mailako haurrek, asteartean 3. eta 4. mailakoek eta asteazkenean 5. eta 6. mailakoek jaialdiak eskaini zituzten ikastetxeko aretoan. Jaialdi hauetan antzerki, musika, dantza eta bertso emanaldiak izan ziren. Horrez gain, jokoak ere izan zituzten. Ostegunean, berriz, mendi irteera izan zuten.

DBHko gaztetxoek ere makina bat ekintzatan parte hartzeko aukera izan zuten: pinpon, futbolen, frontenis eta futbol txapelketak, altxorren bila jokoak...

Ostiral goizean, ikastetxeko ikasle guztiek, La Salle Eguna ospatu zuten. Txikienek eukaristia izan zuten eta, ondoren, zenbait jokotan aritu ziren. DBHkoak, berriz, Antiora igo ziren bizikletan eta sukaldaritza lehia-keta ere izan zuten.

Aurtengo La Salle Astea oso



berezia izan da. Izan ere, La Salleko haurrek Baigorriko Bil-Etxea ikastetxe-koak izan dituzte bisitan.

Bi ikastetxeak duela hiru urte hasi ziren elkartrukearekin. Zumarratarren helburua frantsesa ikasten duten gazteei hizkuntza hau lantzeko aukera eskaintzea izan zen. Baigorritarrena, berriz, gaztelera lan-

tzea. Egun, Iparraldeko ikastetxe-koek, Zumarragan dauden egunetan euskara lantzea nahiago dute.

Hizkuntzak lantzeaz gain, Baigorriko eta Zumarragako ikasleek bi herrietan nagusi diren eredu ekonomikoak ere aztertzen dituzte. Izan ere, Baigorriko nekazaritza da ogibide nagusia eta Zumarragan, berriz, industria.

Festa bikaina Kilometroak 2002ren eskutik

Kanpoan hotz egiten bazuen ere, giro beroa izan zen Ederrena pilotalekuan hilaren 11n. Kilometroak 2002ko antolatzailerik festa handia antolatu zuten eta urretxuar eta zumarragarrek primeran erantzun zuten.

Hasteko, bi herriotako koadrila ugaritako sukaldari onenek zurrurutuna prestatzeari ekin zioten. Arratsaldean, herri-tar asko eta asko Ederrena pilotalekuan izan ziren, bai sukaldari-riena lana ikusten eta baita zegoen kupeletik sagardoa edaten ere. Benetan giro ezin hobea izan zen. Hau lortzeko herriko hainbat musikariren parte hartzea ere izan zen.

Gaueko 9ak aldera sari banaketa izan zen. Ondoren, lehiaketan parte hartu zuten koadrilek afaria izan zuten. Afalostean, Zumarragako bertso-eskolako gazteek "Txotx Operazioa" bertso-trama antzestu zuten. David Buztantentek, Brad Pituk, Mikel Goñik eta gainontzekoek ordubete inguruko saio umoretsua eskaini zuten.

Datozen egunetan ere, hainbat ekitaldi izango ditugu Urretxu eta Zumarragan Kilometroak 2002ko antolatzailerik eskutik. Ekainaren 7an, Eskolarteko Bertso Txapelketaren finala izango da Beloki pilotalekuan. Biharamunean umeen eguna izango da. 0 eta 7 urte bitarteko haurrentzako ekitaldiak Gernikako Arbola plazan izango dira. Goizez, marrazki tailerra, ipuin kontaketa eta puzgarriak izango dituzte. Arratsaldez, berriz, Kukubiltxoren ikuskizuna eta puzgarriak izango dituzte.

8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzako ekitaldiak Lizeoko patioan izango dira. Goizez, herriko ikastetxe bakoitzetik hiru talde egingo dira eta froga ezberdinak izango dituzte. Ondoren, hala nahi duten 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxo guz-tiek, bazkaria izango dute. Bazkalostean, play-backa izango dute.

Kilometroak 2002ko kultura batzordea, herriko musika-ri askoren partaidetza izango duen kantu emanaldi bat ere prestatzen ari da. Emanaldi hau, ekainaren 15ean izango da, gaueko 10:30etan, Ederrena pilotalekuan.



Liburu Eguna Gainzurin

Gainzuri ikastetxeko ikasleek hainbat ekitaldi izan zituzten apirila bukaeran, Liburu Eguna zela eta. Gainzurikoak iaz hasi ziren Liburu Eguna ospatzen, gurasoen ekimenez, ikasle-riena artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz.

Liburu Egunaren inguruko aurtengo ekitaldi guztien artean, azpimarragarrienak ipuin kontalarien saioak izan dira. Ipuin kontalari hauen guztien artean, atzerritar jatorriko ikasle-riena senideak izan dira euren jaioterritako ipuinak jatorrizko hizkuntzan kontatzen. Hauekin batera, itzultzaileek euskarazko bertsoak eskaini dituzte. Honela, Gainzuriko haurrek Marokko, Txina eta Brasilgo ipuinak ezagutzeko aukera izan dute.

Ipuinez gain, Gainzuriko haurrek euren idatziez osatu-tako bi erakusketa eskaini dituzte: bata Urretxuko egoitzan eta bestea Zumarragakoan. Erakusketa hauetan gurasoek zenbait liburu salgai jarri dituzte.

Lehen hezkuntzako 3. eta 6. maila bitarteko haurrek, ipuin kontalarien ordean, Joxean Ormazabal eta Iñaki Mendiguren idazleen hitzaldiak izan dituzte. Gainzuriko irakasle-riena esan digutenez, hitzaldia hauetan entzundakoek ikasle ba-tzuegan idazletasuna piztu du.

BILINTX

LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817


Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA





Josu Aztiria

Munduan gertatzen den guztia

Gipuzkoako periodikorik salduenak komunikazio-kanpaina berria hasi duela konturatuko zineten gehienok. Komunikazio-kanpaina agresiboa eta potente xamarra hasi dute eta orain arte behintzat oso ohikoa izan ez dena. Kontua da, publikoan inpaktoa bilatzeko argazki polemiko eta sugerentz jantzi dituztela iragarkiak; Alardea, Toshack eta Kovacevic aurrez aurre, emakume islamiar bat... Argazkian bertan kanpainaren mezua paratu dute:

"Piensa como quieras, pero infómate"

Itxuran esaldi arrunt eta aseptikoa dirudien arren komunikabide gehienek daramaten ideologia izkutatzen da mezu horren atzean. Esaten digu, aizu igoal zaigu nola pentsatzen duzun, zein alderditakoa zaren eta zein iritzi daukazun baina, informa zaitez. Erosi gure periodikoa, guk emango dizugu jaten. Iritziak eta pentsamendua gauza subjektiboak dira, pertsonari dagozkionak baina informazioa beti da inpartziala eta bakarra.

Mezu honen atzean bi ideia daude:

Batetik, pentsatzea eta informatua izatea desberdinu eta banatu egiten ditu. Garrantzia duena informatzea da, datuak izatea eta aldiz ez da hain inportantea iritzi propioa izatea, eta informazioa interpretatzen jakitea. Hau da, kritikarik, interpretaziorik gabe eta iragazkirik izango ez duten informazio-irensleak izan gaitzen nahi dute komunikabideek; informazio kontsumitzaile hutsak.

Eta, hau Informazio Gizartearen gaitz handienetako bat da, izan ere, nahiz eta teknologia berrien bitartez sekula baino informazio gehiago eskura izan inoiz baino galduagoak eta desinformatuagoak gaude. Gehiegizko datu eta informazioen itsasoan naufrago bihurtu gara eta berdin dio nondik jotzen duen haizeak portua non duen ez dakienarentzat. Izen-abizenak dituzten mass media eta agentzia handiek markatzen dute zertaz informatu behar dugun, noiz eta nola. Inor gogoratzen al da orain Argentinako "caceloradez"? Afganistango emakumeez? txetxenoiez? Hutu eta tutsiez? Gure memorietatik eta ter-

tulietatik ihes egin dute iada honelako albisteez, berrien merkatuan ez baitute lehen bezala kotizatzen.

Bestetik, beste gezur handi bat ere badakar arestian aipatutako mezuak, informazioa inpartziala eta neutrala delako ideia, hain zuzen ere. Eta hori gezur hutsa da. Denok dakigu berri bat manipulatu daitekeela, berri arrunta dena boom informatibo bihurtu eta eskandalua dena komentario xume bilakatu. Berririk ez badago, berriz, lasai, asmatu egiten da eta kito.


EEBBen ekintzak eskuhartze militarra edo terrorismoa izan daitezke, alderdi politiko bat nazionalista espainiarra edo ez-nazionalista izan daiteke eta inkesta batean euskal herritarren %45 independentziaren aurka dagoela esan daiteke edo %55 alde dagoela nabarmendu. Eta segun periodikoa zein ideologia eta pentsamendu duen, aukera bat edo beste bat hartzen du eta kito. Informazioa inpartziala eta neutroa izan daitekeela esatea, kontua eta mozorroa besterik ez da. Nork agurtzen du telediariora "así son las cosas y así se las hemos contado bezalakoe-kin?".

Gustukoa dut gai honen inguruan Sarrionaindiak dioena: Batzuk / egunkarian / munduan gertatzen den guztia / irakurtzen dute / eta / munduan gertatzen den guztia / munduan gertatzen den guztia / dela sinesten dute / Batzutan / haizeak / egunkariaren orriak / astintzen ditu / banderak bailiren.

Inoiz eta sekula baino informazio gehiago dugu eskuragarri, baina gure jakintza handitu, gure iritziak osatu eta inguratzen gaituenarekin kritikoa- goak izateko erabili beharrean, inoiz baino tontoago jokutzen dugu. Nahiago dut zalantzaz, galderaz eta bidezidorretan galdurik dabilen pertsona izan, karril bakarreko informazio autopistetan eroso ibiltzea baino.


Eta bukatzeko aholku bat:
Infómate como quieras, pero piensa.

Zer iritzi duzu hil honetako greba orokorraz?




Alex Lakunza

Greba zentzua duela dirudi, arrazoiak egokiak iruditzen baitzaizkit. Printzipioz, greba egiteko prest nago.



Asier Garmendia

Oso ados nago grebarekin, gobernuak ezarri nahi dituen neurriak ez baititut gustuko. Lantegian zer erabaki hartzen dugun ikusi behar... Izan ere, batzuk ekainaren 19an egitearen alde eta besteak 20an egitearen alde izango dira.



Demetrio Amenabar

Grebaen alde nago, arrazoi askorengatik gobernuari aurre egin behar zaiola uste baitut. Gurutze Gorrian lan egiten dudanez, egun horretan gutxieneko zerbitzuak eskaini beharko ditugu.



Inma Albisua

Greba deialdiari egokia deritzot, bai PPK orokorrean daraman politikarengatik, bai sindikatuek eman dituzten arrazoiengatik.



Luis Miguel Sastre

Sindikatuek eman dituzten arrazoiekin erabat ados nago. Langabezian daudenei ezarri nahi dizkieten neurriak ez zaizkit batere zuzenak iruditzen. Hilaren 19an greba egingo dut.



Mikel Alustiza

Sindikatuek eman dituzten arrazoiekin guztiz ados nago. Ekainaren 19an lantegian greba egingo dugula suposatzen dut.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:
En la edición de esta publicación colabora:

#kutxa

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbica

- Dietetika
- Estetika


Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Antioko baseliz

Antioko baseliza eraiki zutenek ederki asko zekiten zertan ari ziren. Izan ere, haizeak eta euriak gogor zigortzen duten tokian badago ere, ia mila urte daramatza bertan tinko. Dena den, honelako eraikin zaharra ondo zaindu beharra dago eta aldian-aldian konponketa lanak egin behar dira. Zumarragako eraikin kuttunena izanik, udalak, herritar askoren laguntzaz, behar bezalako zainketa eskaintzen dio. Herritar hauen guztien artean, Antioko Baselizaren Lagunak elkartekoak dira konponketa eta txukunketa lanen bultzatzaile nagusiak. Azkenaldian, eliza barruan hainbat aldaketa bultzatu dituzte, hauen artean garrantzitsuena eserlekuen aldaketa izan da. Ekainetik aurrera, baselizaren izaerarekin bat datozen haritzek eginiko aulki sendoak izango dira Antion. Ostiral honetan, arratsaldeko 6etan, aulki berrien inaugurazio ekitaldia egingo da. Bertan, Juan Mari Uriarte Donostiako gotzaina, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta udal ordezkariak izango dira. Beraiekin, Felix Mendia eta Jose Roman Urkiola izango dira, Antioko Baselizaren Lagunak elkartearen berri eman diguten lagunak.



Antioko Baselizaren Lagunak elkartea Domingo Irigoien oiartzuarra Zumarragako parrokoa izendatu zutenean sortu zen. Bere sorreratik elkarteko kidea den Felix Mendiak esan digunez, "Garai hartan, boterearen gustukoak ez ziren apaiak bidaltzen zituzten Zumarragara. Don Domingo familia abertzale oso ezaguneko kidea zenez, Zumarragara bidali zuten".

Domingo Irigoien 1942an heldu zen Zumarragara. Garai hartan, Antioko baselizan oso meza gutxi ematen ziren eta, gezurra badirudi ere, parrokiako tresna zaharrak gordetzeko erabiltzen zen. "Nola izan daiteke hau parrokiaren ganbara!" esan omen zuten Domingo Irigoienek Antioko baseliza lehenengoz ikusi zuenean.

Don Domingok baseliza berreskuratzea erabaki zuen. Horretarako

Antioko Baselizaren Lagunak elkartearen sorrera bultzatu zuen. Pedro Arrizabalaga, Ramon Badiola, Luzio Idigoras, Javier Garin, Anjel Cruz Jaka... lehenengo kideetako batzuk izan ziren. Elkartek Antion egiten zen guztiaren ardura hartu zuen eta San Pedro egunean asanblada nagusia egiten zuen.

Felix Mendiaren esanetan, "garai hartan Antioko baseliza egoera kaxkarrean zegoen eta jendeak ez zion garrantzia handirik ematen. Baselizak zerraila xume bat zuen eta giltza Elizalden egoten zen, nahi zuen ororen eskura. Elkartearen lanari esker, jendea Antiori behar bezalako balioa ematen eta bertara joaten hasi zen".

Hauen guztien artean, Felixek ondo gogoratzen duen moduan, garai hartan Francoren ministraria zen Manuel Fraga ere izan zen. "Reyes Korkostegi

Oñatiko alkateak Arantzazutik Urbiara funikular bat egiteko asmoa zuen eta Fraga Oñatira eraman zuen. Reyesek Antio oso gustukoa zuenez, bertan ere izan ziren".

Lehenengo urte haietan, Antioko Baselizaren Lagunak elkartekoek ez zuten berrikuntzarik bultzatu. Baina, 1956an, koruaren azpian zegoen zutabeak, urte luzetan usteltzen egon ondoren, eman egin zuen eta atzealdeko pareta sabeldu egin zen. Don Domingok Manuel Urkola arkitekto donostiarrari deitu zion eta, honek, konponketa lanak gidatu zituen.

Dena den, Antion egin den obrarik handiena 1975ekoa izan da. "Don Domingok argi zuen Antiok berrikuntza sakonak egin behar zirela eta ez zuen pakerik izan obra hauek egitea lortu zuen arte. 1975eko proiektua ere Manuel Urkolak egin zuen", gogoratzen du Felixek.

aren zaindariak

Obra hau oso sakona izan zen. "Barrualdeko paretak estaltzen zituen karea kendu zen, seroraren etxea bota zen, gangak kendu egin ziren egoera txarrean zeudelako, teilatua konpondu zen... Jende asko gangak kentzearen aurka zegoen, baina oso egoera txarrean zeuden".

Obra honek aurrekontu handia izan zuen eta hau ordaintzeak sekulako buruhausteak sortu zizkien Antioko Baselizaren Lagunak elkartetoei. "Kotxe bat zozketatu genuen, Teila Operazioa egin genuen... Herritarrek diru asko eman zuten, baita udalak eta Foru Aldundiak ere, baina ez zen nahikoa... Espainiako gobernuak dirulaguntza emango zuela agindu zigun, baina dirua ez zen heltzen".

Dena den, azkenean, Espainiako gobernuak ere dirua ematea lortu zuten. Felixek zeresan handia izan zuen hortan. "6 milioi inguruko zorra genuen eta bankua gure atzetik zebilen. Lehenengo hauteskundeak iritsi ziren eta UCDko kidea zen herritar batek, Alonso abizenekoa, ministrari bat etortzeko zela esan zigun. Ministrari hau Antiora eramatea lortu genuen eta baseliza asko gustatu zitzaion. Arkaitzetan hamaiketako eskaini genion eta ni uneoro bere ondoan nengoen, ea zer edo zer lortzen nuen".

Halako batean ministrariak Felix Mendiari honakoa galdetu zion: "zein da arazoa?". "Arazoa 6 milioi pezeta dira" erantzun zion Felix Mendiak. Ministrariak hori egina zegoela eta hamaiketako primerakoa izan zela erantzun zion. "Manso ardoa atera genion eta oso ona zegoela esan zigun! Nik miraria gertatu zela esan ohi dut".

Antioko baselizak, zortzi mende zutik eman ondoren, bere edertasuna mantentzea ere ez da mirari makala. Horretarako, obra handiez gain, lan txikiagoak ere egin behar dira. "Baseliza oso ondo zaindu beharra dago eta, horrek, etengabeko diru eta lan kostua suposatzen du. Zazpi urtetan behin, esaterako, egurraren hezetasuna neurtu beharra dago", dio Jose Roman Urkiolak.

Azken urteotan, dena den, instituzioek lehen baino laguntza handiagoa eskaintzen dute. "Udalak urtero dirulaguntza eskaintzen digu. Horrez gain, udaleko langileak Antion lan egiteko prest ditugu beti. Udalaren laguntza izugarria da. Bestalde, herriko jende askok bere dirulaguntza ematen du eta gremio ezberdinetako langileek Antioko baselizan doan lan egiten dute". Parrokiako biltegia zena Zumarragako altxor handiena izatera pasatu da. Egun, maiatza eta urria bitarteko igande eta jaiegun guztietan meza ematen da, urtean 100 bikote inguru Antion ezkontzen da...

Ostiral honetan, aulki berrien inaugurazio ekitaldia izango da

Don Domingok hasitako lanak bere fruituak eman ditu beraz. Egun, Ascensio Uribesalgo, Jesus Segurola, Luis Mari Garin, Felix Mendia eta Jose Roman Urkiola dira Domingo Irigoienek hasitako lana egiten ari direnak. Sarreran aipatu bezala, euren azken ekarpena baselizako aulkien aldaketa lortzea izan da. Garrantzia gutxiko aldaketa dirudien arren, lan handia

eman du. Izan ere, honelako eraikin batean aldaketa txikiena ere kontu handiz egin behar da.

Jose Roman Urkiolak azaldu digu aulki berrien ezaugarriak zeintzuk diren. "Orainarte Antion mota ezberdineko aulkia zeuden. Guztiak aldatu ditugu eta baselizaren izaerarekin bat datorren diseinua duten aulki erosoak jarri ditugu. Egurra topatzea asko kosta zaigu. Azkenean, egurraren bila Normandiara joan gara, hemen ez baitzuten 6-7 urte lehortzen egon den 5 metro luzeko haritz oholik. Hainbeste denbora lehortzen egon ondoren, egur horrek sekulako bizi-raupena izango du. Aulkiak Urretxuko Modelos Ezgubakoek egin dituzte eta lan bikaina egin dute. Aulki zaharrak ez ditugu bota. Antion zeuden Abaltzisketako aulkia koruan jarri ditugu. Gainontzekoak Eitzako elizara eta San Cristobalera eraman ditugu".

Aulkien aldaketarekin Antiok sekula baino itxura ederragoa izango du. Baina, Felix, Jose Roman eta gainontzekoek zaindari lana egiten jarraituko dute. "Oraingoz Antion ez dago aldaketa edo berrikuntza lanen beharrik, baina hemendik urte batzuetara teilatua aldatu beharko da eta paretak konpondu beharko dira". Antioko Baselizaren Lagunek baselizaz gozatzeko betarik ba ote dute? "etengabe zer hobetu daitekeen begira egoten gara".



Goiargi: 20 urte

Urretxu eta Zumarragako festa eta ekitaldi gehienetan euren ahotsak entzuteaz ohituak, Goiargi abesbatza betidanik hor egon dela iruditzen zaigu. Baina, abesbatza hau 80 hamarkada hasieran sortu zen eta aurten 20 urte beteko ditu. Emakumez soilik osaturik zegoen Goiargiren lehen kantaldia 1982ko uztailaren 1ean izan zen Zelai-Arizti zaharrean. Urteurrena ospatzeko, egun berean eta toki berean, kantaldi oso berezia eskainiko dute.



Goiargiren sortzaile eta bultzatzaile nagusia Maite Palacios izan zen. Urretxuko jaietan herriko koadrila ezberdinek eskaintzen zuten kantaldian, Maitek eta bera bezala musikazaleak ziren hainbat lagunek, urtero elkarri galdera berak egiten zizkieten: "Zer dela eta ez dute emakume gehiagok parte hartzen? Zergatik ez dugu bi herriotako emakumeok abesbatza bat osatzen?".

1981eko Santa Anastasia jaietan, Maiterekin eta bere lagunekin zegoen gizonetzko batek hauen elkarriketa entzun zuen eta Maiteri bi herriotako emakumeak abesbatza batean elkartzeko ez zela gai esan zion. Iruzkina honek Maite mindu zuen eta emakumez osatutako abesbatza bat sortzeko eginahalak egitea erabaki zuen.

Garai hartan, Maite solfeo irakaslea zen. Gainontzeko irakasleei bere asmoa azaldu zien eta hauek babesa eskaini zioten. "Gurasoen elkarteko zuzendaritzari musika eskolako egoitza eta pianoak erabiltzeko baimena eskatu nien eta baiezkoa eman zidaten. Hurrengo pausua, musikazaleak ziren emakumeei banan-banan bilera baterako deitzea izan zen".

Bilera hartara 35 emakume azaldu ziren. "Hauetako batzuk emakumeen abesbatza sortzea ezinezkoa izango zela uste zuten, baina baikorrenok gure ikuspuntua nagusitzea lortu genuen". Lanean hasteko

beharrezko abeslariak bazituzten arren, abesbatza batean ezinbestekoa den zuzendaria falta zitzaien. Zumardi elkarteko eta Zumarragako parrokiako abesbatzak zuzentzen zuen Antonio Rey-rengana jotzea erabaki zuten. "Bixi Garziandia eta biok Antonioren etxera joan ginen eta proposamena luzatu genion. Denbora luzez eztabaidatu ondoren, baiezkoa eman zigun". Ilusio handiz, entseiuak hasi zituzten. Pixkanaka, emakume gehiago animatu ziren eta, gutxira, 60 emakume elkartzea lortu zuten.

Poliki-poliki, abesbatzak jendaurrean aritzeko beharrezko maila lortu zuen. Baina, horretarako, ondo abesteaz gain, abesbatzari izen bat jarri behar zitzaion. Abesbatzako emakumeek botatako

proposamenen artean, Bixi Garziandiarena aukeratu zuten: Goiargi.

Goiargi, 1981eko Santa Anastasietan Maite Palaciosi bota zioten erronkaren ondorioz jaio zen

Abeslari finak, zuzendari prestua, izena... Maite eta bere lagunak lehen emanaldia eskaintzeko prest ziren jada. Abesbatza berriak 1982ko Zumarragako

e kantuan



baki nuen. Abesbatzako nesken lanerako borondatea ikusi zuenean, ezin izan zion gure proposamenari uko egin", dio Maite Palacios-ek.

Xabier Barriolaren zuzendaritzapean, Goiargi abesbatza mistoa izatera pasa zen. Maite Palacios, berriro ere, jende bila hasi zen. "Tabernetan eta, abestea gustuko duten gizonezkoak abesbatzan parte hartzera gonbidatu nituen". Abesbatza mistoak 1984ko ekainaren 22an eskaini zuen lehen kontzertua, Antioko basilizan.

Handik gutxira, udazkenean, Gipuzkoako Abesbatzen I. Topaketa antolatu zuten Urretxu-Zumarragan. Egun Goiargiko lehendakaria den *Pitus* Berriotxoak ederki asko gogoratzen du ekitaldi hura. "Goizean abesbatzak bi herrietako auzoetan aritu ziren eta arratsalde, guztiok elkarrekin, kontzertua eskaini genuen".

Baina, Goiargikoek, herrian hamai-ka ekitaldi antolatzeaz eta kontzertu ugari eskaintzeaz gain, herritik kanpo Urretxu eta Zumarraga ezagutzera eman dituzte. Izan ere, urte hauetan guztietan, makina bat irteera egin dituzte: Alemaniara, Frantziara, Espainiako hainbat tokitara... Garai batean, lehiaketetara ere aurkezten ziren. Honela, Aviles eta Egea de los Caballerosko lehiaketak irabazi zituzten eta 90eko hamarkada hasieran Tolosako lehiaketa sonatuan parte hartu zuten.

1992an Xabier Barriolak Goiargi utzi zuen eta berak utzitako lekukoa Jabier Arratibelek hartu zuen. Goiargikoak, gaintzeko zuzendariekin bezala, oso gustura daude. "Zuzendari guztiakin oso gogor lan egin dugu. Bokalizazio eta arnaste ikastarok egin ditugu, beste zuzendari batzuekin abestera moldatu gara... Entseiuetara sekula ez gara berriketan egitera joan eta hau oso nabaria da: lehen baino abesti zailagoak abesten ditugu eta hizkuntza ezberdinetan gainera (alemanieraz, frantsesez...)".

Lan honi guztiari esker, bi herriotako jende askok kantuan ikasi du eta herriko kantuzaleatasuna hazi da. Gainera, Goiargiren eskutik, herrian abesbatza berriak sortu dira: Kimets, Goiargi Txiki eta gaztetxoeren

jaietan egin zuen jendaurreko aurkezpena, Zumardiko abesbatzarekin batera. Zelai-Arizti zaharrean izan zen kantaldia Iñaki Linazasoro idazle zumarragarrak aurkeztu zuen eta sekulako harrera izan zuen. Lehenengo saioan izandako arrakastak, Goiargiko emakumeak orduan eta gogorrago lan egitera animatu zituen.

Baina, handik gutxira, Goiargiko emakumeek albiste txar bat jaso zuten: Antonio Rey-k hiru abesbatza zuzentzea gehiegizko lana zela eta Goiargi utzi behar zuela esan zien. Goiargikoak ez zeuden hainbesteko lana eman zuen abesbatza bertan behera uzteko prest eta beste zuzendari baten bila hasi ziren. "Buruari bueltaka aritu nintzen eta, azkenean, Legazpiko abesbatzako zuzendaria zen Xabier Barriolari deitzea era-



RENEDO argazkiak
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labeaga 52-54 F. URRETXU
☎ 725682 ☎ 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

1987an Egea de los Caballerosko abesbatza lehiaketa irabazi zuten Goiargikoek.



abiesbatza. "Hauek guztiak musika eskolan aritu direnez, musika-kultura dute. Kimets Goiargiren harrobia izan zitekeela uste genuen, baina Kimetseko neskek euren kontura jarraitzea erabaki dute".

Hala izanik, egun ere abeslariren bat behar duten bakoitzean kantuzaletasuna duen jendarengana jo eta taldean sartzea proposatzen diote. "Taldeko kideok zaletasun handia dugu. Dena den, garai batean 75 lagun inguru aritzen ginen eta egun 40 besterik ez gaude. Hauetatik 18 emakume hasieratik gabiltza. Gizonezkoek dagokionez, 10 besterik ez

ditugu. Goiargiko ateak denentzat zabalik daude, batez ere gizonezkoentzat...".

Abesbatzan primerako giroa aurkituko dutela diote *Pitus* eta Maitek. "Goiargiko kideen artean oso harreman ona dugu. Abesteaz gain, urtero irteera bat egiten dugu eta, garai batean irteeretan bakoitza bere koadrilatxoarekin joaten bazen ere, egun denok elkarrekin ibiltzen gara. Hau bizi dugun giro onaren isla da".

Aurtengo irteera aste pare bat barru egingo dute: ekainaren 15ean eta 16an Jacan izango dira kantuan. Aragoitik

bueltan, urteurrena ospatuko dute. Horretarako, lehen emanaldiaren 20. urteurrena betetzen den egunean, uztailearen 1ean, kontzertua eskainiko dute. Kontzertu hau, lehenengo emanaldia bezala, Zelai-Arztin izango da eta Iñaki Linazatorok aurkeztuko du. Bertan, urte hauetan guztietan abestu dituzten hainbat abesti eta aurten prestatu dituztenak abestuko dituzte. Bukaeran, orainarteko zuzendari guztiei oroigarri bat emango diete eta urte hauetan guztietan abesbatza aritu diren guztiek azken kanta abestuko dute. Iñaki Olazabal zena ere ez da handik urrun ibiliko.



Urte hauetan guztietan irteera ugari egin dituzte. Argazki hau Alemanian atera zuten.

Goierriren 50. urteurreneko ospakizun ekitaldiak

Gehienek dakizuen moduan, Goierri Kirol Elkarte bere 50. urteurrena ospatzen ari da aurten. Hori dela eta, urte hasieraz geroztik, hainbat ekitaldi berezi antolatu dituzte. Datozen egunetan, urteurrena ospatzeko antolatu dituzten ekitaldi nagusiak izango dira.

Ekainaren 15ean, elkarte ezberdinen arteko Gastronomi Lehiaketa izango da. Lehiaketa honetan, Urretxuko elkarte guztiek eta Zumarragako Urola eta Galeperra elkarteek, makailua prestatuko dute "ajoarriero" erara.

Ekainaren 17tik 21era bitartean, hitzaldiak eta diapositiba emanaldiak izango dira. Azpimarragarriena, Edurne Pasaban mendizale tolosarrak ekainaren 21ean, arratsaldeko 7etan Pagoeta antzokian, eskainiko duen diapositiba emanaldia eta hitzaldia izango da.

Hurrengo egunean, larunbatean, kirol ekitaldi ezberdinak izango dira Gernikako Arbola plazan. Hasteko, 3X3 saskibaloia txapelketako azken fasea jokatuko da. Ondoren, 6,25 metrotatik jaurtike-ta txapelketa izango da.

Horrez gain, goizean zehar, mendizale sailaren eskutik eskalatzeko eta rapela egiteko aukera izango da, ehiza sekzioek txakurren erakustaldia egingo dute eta munduko arrantza txapeldun ezagunek

euliak nola jartzen diren erakutsiko dute. Goizeko 11:30etan, berriz, San Juan pilota txapelketako finalak jokatuko dira Ederrena pilotalekuan.

Egun berean, arratsaldeko 4etatik aurrera, Urretxu eta Zumarragako kaleak zeharkatuko dituen gaztetxoentzako Bizikleta Festa, xake jardunaldi azkarrak eta, Isaak Jimenoren eskutik, ehiza-hegaztien erakustaldia izango dira.

Bestalde, hurrek, jokoak, buruhaundiak eta txokolata ere izango dituzte.

San Juan egunaren bezperan, ekainaren 23an, ekitaldiak goizean goiz hasiko dira. 8:30etan, zikloturisten III. ibilaldi herrikoia izango da. 10etan, berriz, plater tiraketa izango da Odriozolako kanpan.

Eguerdiko 12:30etan, elkarteko hildakoen aldeko meza ospatuko da San Martin de Tours parrokian. Ondoren, eguerdiko 2:30etan, bazkari herrikoia izango da Etxeberri jatetxean. Bazkarira, nahi duen herritarrak ere joan daitezke. Txartelak ekainaren 10a bitartean salgai izango dira Goierri elkarteko tabernan.

Ekitaldi hauez guztiez gain, aurten ere, Goierri K.E.-k Irimora Igoera antolatuko du San Juan egunerako. Bestalde, ekainaren 17tik 30a bitartean, Goierriko sail ezberdinetako argazki zahar eta berrien erakusketa izango da Juan de Lizarazu aretoan.



ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea

☎ 943 72 22 77

URRET XU

HERCE
Enkargatzaile K.E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRET XU

TABERNA

Goierri

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura

Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80
URRET XU

foto luz
Argazkilaria

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

URKI

liburudenda

Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA

Eitzako seme baten ohoretan

Hil honetan Eitzako festak izan direla eta, Zumarragako auzo honekin loturiko istorio baten bila jo dugu Anjel Cruz Jaka Legorbururengana. Anjel Cruzek, nola ez, Eitzako eta bertako etxeetako historiari buruzko orrialde mordoxka bat idatzi du bere idazmakina zaharrean. Hauek guztiak, esku-zabaltasunez, gure esku jarri ditu. Guztien artean, joan zen mendearen hasieran Eitzako Pilotoenean jaio zen Jose Antonio Zabaletaren istorioa hautatu dugu. Jose Antonio Zabaleta Anjel Cruz Jakaren laguna zen. 36ko gudan Euskal Gudalostearekin borrokan aritu zen, 1937ko udaberrian atxilotu eta fusilatu zuten arte. Hona hemen Anjel Cruz Jakak Eitzako semea zen bere lagunaz idatzitakoa.



Jose Antonio Zabaleta Bizkaiko gudu-zelaian.

"Beste asko bezala, Eitzara esne bila igotzen nintzen eta, 1924 inguruan, 26 zenbakia zuen etxeak Pilotoenea izena zuela jakin nuen. Izan ere, garai bateko bere jabea, bertan jaio eta Getarian bizi zen marinel bat izan zen.

1920ko hamarkadan, bertan, Juan de Zabaleta Pildain, Josepha de Peña Garicano ("la morenita") eta euren seme-alabak bizi ziren: Jose Antonio, Isidro, Nicolas, Mercedes eta Paquita. Eurekin guztiekin harreman handia izan nuen, urte batzuk beranduago, nire kalera, Elizkalera, jaitsi baitziren bizitzera.

Antzeko adina genuenez, Jose Antonio eta biok lagun minak egin ginen. 1927tik 1937ra bitartean makina bat bizi-pen igaro genituen elkarrekin: ikasketak, txangoak, Pagolako baratzean fruta lapurretak... Neskekin ibiltzen ere elkarrekin hasi ginen.

Elkarrekin bizi izandako abentura txikietakoa bat 36ko San Ferminetan, izan zen. Jose Antoniok kamioi bat Iruñera zihoala jakin zuen eta polizoi moduan kamioiko erremolкера igo ginen. Iruñean

primeran ibili ondoren, tren hartu eta etxera itzuli ginen baratxuriak sorbaldatik txintxilik genituela. Hala, gure amak engainatzea lortu genuen.

Handik astebetara guda hasi zen. Gutxira, gure ideien alde borrokatzen joan ginen. Jose Antonio, berehala, Euskal Gudalosteko lan-talde nagusiko kide egin zuten: Candido de Saseta komandante nagusiaren laguntzailea. Ordutik, Candido non Jose Antonio han, egun asko eman genituen elkar ikusi gabe.

1937ko otsailean Asturiasera joan ginen Francoren gudalosteek Oviedon ezarri zuten setioa haustera. Bertan nengoela, Fueso herrian, Jose Antoniorekin topo egin nuen. Bezperan etsaiek Saseta hil zutela eta gauez etsaiek hartutako ingurura Sasetaren gorpua berreskuratzen joan behar zela esan zidan. Gau hartan ez nuen lo egiterik izan.

Hurrengo goizean, Jose Antoniok, lur jota, gudu-zelaian ez zuela hildakoen gorpurik aurkitu esan zidan. Dirudenez, frankistek gorpu guztiak zulo batean hilobiratu zituzten.

Bi hilabete beranduago, berriro ere Jose Antonio topatu nuen. Oraingo honetan Euskal Herrian geunden eta frankisten erasoaldia bortitza zen. Jose Antonio Aralar bataloiko komandantea zen eta, gu bezala, atzeraegiten ari zen. Jantziak odolez zikindurik zituen eta ea zauriturik zegoen galdetu nion. "Ez da nire odola" -erantzun zidan- "atzeraegiten sorbalda gainean eraman dudan nire gudari batena da". Hau izan zen Jose Antonio bizirik ikusi nuen azken aldia.

Handik gutxira biok preso geunden. Bera Santoñako gartzelan sartu zuten eta ni Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparru batean. Hilabete batzuk beranduago, Soriako langile bataloi batean nengoela, Jose Antonio Derioko hilerriko paretan aurrean fusilatu zutela jakin nuen.

Beranduago, bere aitorleari, hil aurreko uneetan, Zumarragako parrokoari bere idatzi bat emateko eskatu ziola esan zidaten. Parrokoak idatzi hau elizako pulpitan irakurtzea nahi zuen. Bertan, bere herriari barkamena eskatzen zion eta bera barkatzen hiltzen zela zioen".

San Isidroak 2002



MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Herri Aldizkaria

Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 72 57 75 telefonora.
Merkea eta ona!

BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA

Ezker Abertzalearen estrategia politikoaren inguruan

Otamotz aldizkarian apirileko alean Bere-k idatzitako iritziei erantzutera nator. Bere, zure iritzia oker daude. Edo ez gara herri berean bizi...

Artikuloaren ideia nagusia da ezker abertzalea ez dela gai bere proiektua aurrera eramateko, nahiz eta borondate ona izan, ETA oztopo gaindiezina dela gure ideiak herrira iristeko.

Badira, jadanik, hamar bat urte ni ezker abertzalearen inguruan hasi nintzela ibiltzen. Jarrain, AEK-n ikasten... eta orain Batasunan. Denbora luze honetan ez dut ikusi nik hainbeste jende orain bezala ez manifestan, ez batzarretan, ezta ezker abertzaleko erakundeen egituretan ere. Jendea, gazteak behintzat, badago.

Beste aldetik, errepresioa gure herrietan inoiz ez da izan hain zuzena eta jasangaitza. Detenituak, exiliatuak, torturatuak, espetxeratuak, jipoituak, ilegalizazioak... azkenengo hilabetetan denetarik sufritu behar izan dugu. Era berean, erantzun zabalak eta masiboak egin dira. Urretxu-Zumarraga egunkarietako lehenengo orrian egon da eta hau ez da inoiz pasatu. Horregatik, eta hau da erantzuteko beharraren arrazoi nagusia, min egin dit zuk orain herriaren aurrean ezker abertzalearen kanpo zaudela Otamotzetik hain garbi esateak. Zergatik orain? Aralar-eko kideak bezala, etsaiak hortzak erakusten dituenean, badaezpada argi geratu dadila ez zaudetela gurekin. Oker zaudete.

Zorionez, ezker abertzaleak badauka proiektu politiko koherentea Euskal Herrirako. Argi dago akatsak

egin ditugula azkenaldian (hor daude maiatzaren 13ko emaitza kaxkarrak). Baina ezker abertzaleak azkeneko hamarkadan zuzen zuzenean asmatu du bere estrategia politikoan. Eta hau da estatu espainola eta frantsesa gure aurka hain aztoratuak egotearen arrazoi nagusia. Badira urte batzuk badakigula estatuak ez digutela ezer emango negoziazio batean, eta Euskal Herri independente eta sozialista batekin esnatuko garen egun magikorik ez dela iritsiko. Gure herriak guk bakarrik eraiki behar dugu. Alternatiba Demokratikoa plazaratu zenean 1995an ideia hau lantzen joan zen eta hortik etorri zen ETaren tregua.

Lizarra Garaziko akordioan argi geratzen zen gatazka politikoaren arrazoiak politikoak zirela, Euskal Herria ukatua zegoela eta ondorioak (ETA barne) horregatik zirela. Eta gatazka konpontzeko autodeterminazioa onartu behar zuten Estatu espainol eta frantsesak. Lau urte beranduago, Batasunak jarraitzen du hori pentsatzen.

Garai horretatik bi ikasgai ateratu ditugu. Lehenengoa, nazio eraikuntza da abertzaleen eginbeharra. Bigarrena, autodeterminazioa da gatazkaren irtenbide bakarra. Atzera joan dira beste batzuk, ETA dela arazoa, ETarik gabe dena posible dela eta horrelakoak entzuten ari gara berriro abertzale batzuen ahotik. Oker zaudete.

Baina garai hauetan, ezker abertzalearen estrategia politikoaren zutabe nagusia nazio eraikuntza da. Hau da, Madril eta Parisen zain egon beharrean, goazen instituzio eta sujeta nazionalak eraikitzen. Zazpi pro-

bintzietako Herri bat bezala pentsatu behar dugu. Jadanik libre izango bagina bezala. Udalbiltzatik hasita Liburutegi nazionalera, Euskal Meteorologia Institututik Unibertsitate nazionalera. Era berean, hor daude Zuberoa plana, anai txikiak laguntza behar duelako, edo selekzio nazionalen aldeko ekimena, edo Euskal Karneta erabiltzearena (EHNA hemendik gutxira hasiko da egiten gure herrietan). Norberak jakin behar du non ikusten duen bere burua.

Demagun, komikiak gustatzen zaizkizula eta ez dagoela elkarte nazional bat non komikiaren inguruko istorioak lantzen diren, Espainian, Japonen edo Kuban egon daitekeen bezala, Euskal Herri osoko horrelako elkarte bat izan behar dugu (ez du balio Euskal Autonomiakoa izateak). Hau, noski, adibide bat besterik ez da eta lehentasun gutxikoa, baina egin beharrekoa ere.

Eta horrelako ekimenetan lan egin nahi ez izana ez da ETA dagoelako. Nire ustez, beldurratik izan daiteke, beldurra errepresioari (egongo delako) eta beldurra etorkizunari, aldaketari. Beldurra izatea normala da, gizakien baitan dago, biziraupenerako balio digu. Batzuetan ez borrokatzea eta era berean jarraitzea da onena, bai. Baina beste batzuetan ez dago beste erremediorik eta borrokatu behar da. Euskal Herrian hori gertatzen da, ez badugu gure kabuz gurea egiten desagertuko gara herri bezala. ETaren aitzakiarekin, Bere, oker zaude.

Peio Galvez (Batasunkidea)

FAMILIA BABES ASEURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEURUA.
-ISTRIPU ASEURUA.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Labeaga, 16 URRETXU
☎ 943 72 93 69

La Previsora Bilbaina, S.A.
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa



Adrian, hori da hori zorientasun aurpegia! Real Madrileko zaletua al zara? Zorionak eta ondo ibili!



Aitor, oraingotan ere bihurrikeriaren bat prestatzen ari al zara? Zorionak eta ondo segi!



Aitor, jakin al daiteke zer arraio dela eta zauden horren pozik? Zorionak eta ondo ibili!



Aitor, zure arreba bezain bihurria al zara! Hau da hau mutrikuar koa-drila! Zorionak eta ondo segi!



Alberto, oraingoan ere ospakizun batean harrapatu zaitugu! Ez zara ez galduko! Zorionak!



Ana, hori da hori txintxo aurpegia duzuna! Zorionak eta segi orainarte bezain formal!



Ander, alaitu ezazu aurpegia motel, urtebetetze egunean opari bikainak jasoko dituzu eta! Zorionak!



Ander, kontu handiz alba zaitetz, bestela Shin Chanek baino koskorreko handi-agoa hartuko duzu eta!



Ander, segi-zak "interesante" aurpegi hori jartzen eta egunen batean ligatuko duk! Zorionak!



Antziñe, hori da hori orrazkera dotorea! "Operación Triunfo"-ko Rosa de España dirudizu!



Asun, argazkilariak Eitzan harrapatu zaitu... ez genekien horren parrandazalea zinenik!



Balen, injenieritza ikastera joan al zinen zure garajejan kotxea sartzeko egin beharrekoak ikasteko?



Celia, ez genekien horren lortsatia zinenik... ez zaitetz Generen atzean eskutatul! Zorionak!



Cristina, zein da aurrean jarri zaizun buruhaundi hori? Zorionak eta ondo ibili!



Ekaitz, txintxo dirudizun arren zere edo zergatik ipiniko zizuten izen hori... Zorionak eta ondo ibili!



Eneritz, kilometroak egunerako zinta erostea ahazten bazaie, badakite nori eskatu! Zorionak!



Eukene, ez al duzu argazki kamera berria erosteko asmorik? Merke asko daude ba... Zorionak!



Gaizka, lehenengo jaunartzea egin ondorengo argazki bat pasa ieza-guzu! Zorionak!



Gurutz, hori da hori txintxo aurpegia duzuna! "La vida es bella" filmeko haurra dirudizu! Zorionak!



Ibai, etzazu txintxo aurpegia jarri, bada-kigu bihurri xamarra zarela eta! Zorionak eta ondo ibili!



Iban, behingoz eguzkia atera da eta zu itzuletan ezkutatul al zara? Zorionak eta ondo ibili!



Ibon, zer dela eta zaude horren serio? Ea urtebetetze egunean alaigo ikusten zaitugun! Zorionak!



Idoia, itxi ezazu ahoa gainontzekook ere amasa hartzeko esku-bidea dugu eta! Zorionak!



Igor, denbora gehiegi eman duzu azterketak prestatzen eta burua hazi zaizu... Zorionak!



Imanol, hori da hori flekilloa! Gomina erabiltzen al duzu? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Imanol, zuri ere burua hazi al zaizu? Aurki bi orrialde beharko ditugu zuen buruak sartzeko!



Iñaki, ez al duzu entzun solariumean azala belzte txarra dela? Zorionak eta ondo ibili!



Irati, hori da hori txintxo aurpegia duzuna... lkastolan ere horren txintxo ibiltzen al zara? Zorionak!



Itziar, hori da piruleta puska jan duzuna... Ezpainak eta mingaina gorri-gorriak utzi dizkizu! Zorionak!



Janira, zapia buruan eta ibili munduan, ea irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun hurrenguan!



Janire, hori da hori marimais-tra aurpegia duzuna! Irakaslea baino okerragoa izango zara!



Jon, Heidiren anaia gaztea al zara? Zure arreba honezkerok zaharren egoitzan izango da... Zorionak!



Jon, hori da hori xelegre aurpegia duzuna! Zu ere bihurrikeriak egiten abila izango zara!



Jones, zuzendu ezazu burua, bestela bihar sekulako lepoko mina izango duzu eta! Zorionak!



Josepi, hori da hori mendizale itxura duzuna! Iñaki Beitiaren omeneko martxan parte hartu al duzu?



Kakun, zertarako makurtu zara horrenbeste? Ondo pasa urtebetetze eguna!



Leire, hurrengotan argazkilaria flasha pizteko esaiozu! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Maddi, egungo umeek denetarik iduzte ez halere ez diguzue irrifarre txiki bat ere eskaintzen!



Maitane, azkenean irrifare eskaini digun haur bat topatu dugu! Zorionak eta segi horren irrifartsu!



Maite, azkenaldian nahiko euraldi petrala izan dugu, baina ez da hainbeste-terako neska! Zorionak!



Mari Carmen, UEFArako sailkatu dela eta Denilson gustura izango duzula Zorionak eta ondo ibili!



Maria, zure izenkideari bezala, zuri ere Jainkoa agertu al zaizu? Zorionak eta ondo ibili!



Maria Dolores, ez iezaguzu horrela begiratu oraindik ez dizugu ezer txarrik egin eta! Zorionak!



Martintxo, hori da hori bihurri aurpegia duzuna! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Mikel, hori da hori izu aurpegia! Aznar dutxatik irteten ikusi al duzu? Ezingoz zaitugu zoriorduan...



Miren, ez iezaguzu aurpegi hori jarri neska, ikaratu egingo gaituzu eta! Zorionak eta ondo ibili!



Miren, kapela buruan eta ibili munduan. Ez zineten zuek galduko Donostia inguruan! Zorionak!



Mirian, etxeko gortinari zati bat kendu al diote zuri buruan jartzeko? Zorionak eta ondo segi!



Nerea, beti kexaka baina argazkian ere mutil pare aldamenean duzula ageri zara! Zorionak!



Nerea, katekistekin pastel gehiegi jateagatik gelditu al zaizu aurpegi hori? Zorionak eta ondo ibili!



Pablo, Marujita Diazek baino "flekillo" xelegreagoa duzu, motel! Zorionak eta ondo segi!



Rodri, NBAko jokalarien kolorea hartzera joan al zinen Katalunia alde- ra? Zorionak!



Sofia, zer demontre egin dizute buruan? Ez gaitu batere harrizten zure bekoskoak... Zorionak!



Udane, horrelako neska politak ez al digu irrifarre txiki bat eskaini behar? Zorionak eta ondo ibili!



Unai, azken urtebetean gaizki portatu zarenez, azken tokian jarri zaitugu! Zorionak eta ondo segi!

Mendi martxa



Bost urte pasa dira jada, Urretxu eta Zumarragako hainbat elkartek Iñaki Beitia euskaltzale eta mendizalea zena gogoratzeko mendi martxa antolatzea erabaki zutenetik. Iñaki Beitiaren omenezko martxa Euskal Herriko martxa garrantzitsuenetakoa izatera iritsi dela esan dezakegu. Lehen ekitaldia irailean izan zen eta 160 izan ziren partehartzaileak. Bigarren edizioa uztailean izan zen eta 175 lagunek parte hartu zuten. Hirugarren edizioaz geroztik mendi martxa maiatzeko hirugarren igandean ospatu da eta izena eman dutenen kopuruak etengabe gora egin du:

1999an 311 izan ziren, 2000. urtean 477, iaz 596 eta aurten, azkenik, 693.

Datu hauek argi eta garbi erakusten dute Iñaki Beitiaren omenezko mendi martxak Euskal Herria osoan lortu duen sona. Izan ere, urtero Euskal Herriko txoko guztietako mendizale ugari hurbiltzen dira Urretxu-Zumarragara mendi martxa honetan parte hartzera. Hauek guztiek, gure herrietako eta inguruko mendietako paraje ederrenak ezagutzeko aukera izaten dute. Herritar askok ere, mendi martxari esker, etxe ondoan izan arren ezagutzen ez zituzten paraje zoragarriak ezagutu dituzte.

Mendi martxa euskal mendizaleen festa handia bilakatu izanaren "errudunak" maiatza aurreko hilabeteetan eta mendi martxaren egunean lan itzela egiten duten antolatzaileak dira. Urtero ibilbidean berrikuntza erakargarriak sartzen saiatzen dira, eskuorri eta web-gune erakargarriak prestatzen dituzte... eta, batez ere, martxaren egunean partehartzaileei zerbitzu bikaina eskaintzen diete. Aurten ere, lan bikaina egin dute eta partehartzaileak nekatuta, baina gustura eta datorren urtean ere parte hartzeko asmoz itzuli dira etxera. Hona hemen aurten-go mendi martxaren kronika laburra.

arrakastatsua

Goizeko 6ak baino lehenxego, artean egunak guztiz argitu gabe, giro bikaina zegoen jada Kalebarren-Areizaga plazan. Ibilbide luzean parte hartu zuten 253 mendizaleak goizeko 6etan abiatu ziren. Ordu pare bat beranduago, ibilbide laburrean parte hartu zuten 418 lagunak abian jarri ziren.

Eguraldi bikaina lagun, bakoitzak bere martxan, mendizaleek egun ederra igarotzeko aukera izan zuten. Bi ibilbideak toki beretik pasatzen ziren hainbat kilometrotan eta eguneko irudirik ederrena Izazpin gora zihoan ia 600 laguneko jende ilara izan zen.


Mendizaleen artean aparteko giroa izan zen eta Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako mendizaleak oso gustura ibili ziren. Hauetako askok, azken egunotan posta elektronikoz zorionak eman dizkiete antolatzaileei.

Izan ere, ia 700 laguneko partaidetza duen mendi martxa antolatzea batere erraza ez den arren, aurtenera antolatzaileak oso fin aritu dira. Anoa-postuetan, esaterako, azkenetakoak pasa zirenek ere ia denetarik aurkitu zuten. Ibilbidea bera ere, mendizaleen gustukoa izan da. Hauetako askok, Gabirin, Ezkion, Izazpi-Samiñon... ikus daitekeen paisaia azpimarratu dute.

Hamaika eta erdiak aldera, ibilbide laburra egiten lehenengoa izan zen mendizalea heldu zen Areizaga-Kalebarren enparantzara. Hamar minutu beranduago, ibilbide luzea betetzen lehenengoa heldu zen. Hauen atzetik, pixkanaka-pixkanaka, gainontzeko mendizale guztiak heldu ziren. Ibilbide laburra egin zutenen denbora batzbestekoa 6 ordukoa izan zen. Ibilbide luzea egin zutenen artekoa, berriz, 9 ordukoa.

Areizaga-Kalebarren enparantzan nekatuta baino gustura, egindako lanaz harro zegoen jendea ikus zitekeen. Batzuk, egindakoa ospatzeko, baxoerdi batzuk hartu eta lagunartean bazkaltzera joan ziren. Bestiak, pott eginda, zuzenean ohera.





Luis De Arriba

Luis Salamankan jaio zen eta 21 urterekin Zumarragara etorri zen lan bila. Patricio Etxeberrian hasi zen lanean eta bertan jarraitzen du lanean (egun Bellota). Jaioterrira oportetara joan zen batean, egun bere emaztea dena ezagutu zuen eta, handik gutxira, gazte beraz, ezkondu ziren. Izan ere, neskalaguna (Gene) senar-gaia noizean behin soilik ikusteaz berehala nazkatu zen.

Luis eta Gene oso ezagunak dira Argixaon, Urolaren zaletu finak baitira. Luisek 14 urte daramatza Urolan delegatu lanean eta emaztea ahal duen partida guztiak ikustera joaten da.

Luisen ustez, delegatu lana ez da gogorra, baina herrietako futbol taldeen etorkizuna ez du batere ondo ikusten. "Lehen, jokalariek lortzeko txapelketak antolatzen genituenean, 300 gazte aurkezten ziren. Egun, 60 aurkezten dira eta ez dugu non aukeratu. Gauzek dauden horretan jarraitzen badute, ezingo ditugu orainarte izan ditugun talde guztiak mantendu.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez genuen horretan pentsatzen. Jaio nintzen herrian ikastetik lan egitera pasatzen ginen eta kitto.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Telebista ikustea, ibiltzea eta Argixaora igotzea.

-Bizitzeko toki bat?

Denoi gustatuko litzaziguke kostaldean bizitzea, baina Zumarragan ere primeran bizi gara.

-Urolan ikusi duzun jokalaririk onena?

Alberto Alejandro.

-Clemente ala Toshack?

Bat aukeratzekotan, Toshack.

-Argixaoko kantina ala Donostiako taberna bateko terraza?

Argixao ingurura joateak asko animatzen nau. Jende askok bertan bizi naizela uste du.

-Salamanca ala Real?

Salamankarra naizenez, Salamanca taldea gustukoa dut, baina nire taldea Real da.

-Realeko jokalaririk gustukoenak?

Xabi Alonso eta Javi De Pedro.

-Lehengo gazteak ala oraingoak?

Lehengoak zintzoagoak ziren.

-Ba al dago Urola ondo arbitratu duen arbitrorik?

Arbitro kontua oso gaizki dago maila guztietan. Urolarekin, aurtan, bereziki gaizki ibili dira.

- "Hooligan" batekin ezkondu al zaude?

Emazteari futbola gustatzen zaio, baina zelaian talde bakarra ikusten du. Ezin dugu partida bat elkarrekin ikusi, beti Urolaren alde egiten baitu.

-Bigotea mozteko asmorik ba al duzu?

Ez dut inongo asmorik. Ezkontzeko moztu nuen eta ez dut berriro moztuko.

-Ileheriak ala beltzaranak?

Beltzaran batekin ezkondu nago, baina ileheriak ere

gustuko ditut.

-Egindako azken oparia?

Emazteari oparitu nizkion kartera eta lepokoa.

-Eta jasotakoa?

Alabak oparitutako nezeserra.

-Data bat?

Ezkontza eguna: 1982eko urriaren 10a.

-Neska eta mutil izen bana?

Naiara eta Eneko.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Kirol emankizunak, lehiaketak eta dokumentalak (lehenengo La2-ekoak ikusten ditut eta, ondoren, ETB1ekoak).

-Bereziki gorroto duzuna?

"Kotilleo"-koak ez ditut atsegin, baina gorroto ere ez.

-Liburu bat?

Ez dut irakurtzeko ohiturarik.

-Filme bat?

"Juana la Loca".

-Gustuko abestia?

Lehen denak atsegin nituen, egun ez dut musika jarraitzen.

-Soinu bat?

Arbitroaren txistuaren soina partida amaieran, Urolak partida irabazten duenetan.

-Usain bat?

Larrosarena.

-Janari bat?

Janari guztiak atsegin ditut. Emazteari berak okerrago kozinatuko balu hobe izango litzatekeela esaten diot.

-Ura ala...

Lehen poteatzea gustukoa nuen, baina orain ura edaten dut.



SASIETA
MANKOMUNITATEA



sukaldeko olioa

birziklatzeko
garaia ere heldu da!

Maiatzatik aurrera
Etor zaitez hilero gure furgonetara
erabilitako sukaldeko olioa ekartzera.



URRETXU	ZUMARRAGA	LEGAZPI	CARREFOUR Olaberria	MAXI-EROSKI Ordizia
Hileko lehenengo ostegunetan 9:00-13:00	Hileko bigarren larunbatetan 9:00-13:00	Hileko lehenengo ostiraletan 9:00-13:00	Hileko lehenengo larunbatetan 16:00-20:00	Hileko lehenengo larunbatetan 10:00-14:00
Merkatuko plazan	Merkatuko plazan	Udaletxeko plazan	Aparkalekuan	Aparkalekuan

► Bilketa-egutegiak kanpo olioak noiznahi jasoko da Garbigunean ere.
Helbidea: Deskargako bidea, GI-632 errepidea - 14,4 Km. - Tfoa: 943 72 39 53

Oharra Ez da jasoko autoetako
olio zaharririk

Jatetxeek eta taberneek, bilketa berezia
egiteko eska dezakete telefono honetara
deituta: 943 47 23 35 (Ecogras)

**Eta gainera, zure
laguntzagatik
oparitxo bat
ere jasoko duzue!**



Argibide gehiago 943 16 15 55, Sasieta Mankomunitatean

Jose Mari Iparragirre B.H.I.



Erdi mailako heziketa zikloa Erizain laguntzailea

Osasun familia, A-D ereduetan
Titulazioa: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria
Iraupena: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),
lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)
Lanbide aukerak:

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Kontsulta pribatuetan
- Zaharren egoitzetan
- Hortz-kliniketan laguntzailea
- Gaixoen zaintza

J.M. Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara bidea z/g., Urretxu

Telefonoa/faxa: 943 72 14 13-943 72 14 03

Posta elektronikoa: jmiparragirre@edunet.es





**SUKALDE
ERAKUSKETA**



Udala enparantza, z/g.

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRETXU